

## BIZITZA:

Justo Garate Arriola (Bergara, Gipuzkoa, 1900ko abuztuaren 5a - Mendoza, Argentina, 1994ko [uztailaren 2a](#)) sendagilea, euskal gaietan aditua eta gaztelaniazko idazlea izan zen. Goitzen ugari izan zuen: *Eneko, Eneko Mitxelena, Eneko Zilueta, Elo, Elorregi, Txeru Arriola.*

Madrilen eta La Platan (Argentina) egin zituen medikuntzako ikasketak. Euskaltzain urgazle izendatu zuten, euskal kulturaren alde egin zuen lan handiarengatik. Espainiako Gerra Zibilaren garaian Argentinara erbesteratu zen.

*Revista Internacional de los Estudios Vascos, Eusko Jakintza, Munibe, Gernika, Príncipe de Viana* aldizkarietan eta *Boletín Americano de Estudios Vascos* eta *Euskalerrriaren Adiskideak* elkarteko argitalpenetan eman zituen argitara lan aipagarrienak.

*Doctor honoris causa* izendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak 1982. urtean. Mendozan (Argentina) bizi izan zen.

## OBRA:

Bere lan nagusiak hauek dira:

- *Guillermo de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia* (1933)
- *Ensayos euskarianos* (1935)
- *La época de Pablo de Astarloa y Juan Antonio Moguel* (1936)
- *El viaje español de Guillermo de Humboldt (1799-1800)* (1946)
- *Viajeros extranjeros en Vasconia* (1942)
- *Cultura biológica y arte de traducir* (1943)
- *El carlismo de los vascos* (1980)

